

ELKARRIZKETA

Javier Mata

Bultz-Laneko Zuzendari Orokorra

“Teknologiaren eraginez aldatzen doan lan merkatuan gaude”

Bultz-Lan Consulting Euskal Autonomia Erkidegoko empresa berriak sortzen eta ETEak finkatzen espezializatutako aholkularitza enpresa da. 1989. urtean sortu zen eta, harrezkerotik, ekintzaileei bere laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dizkie. Euskal Herrian barrena ekimen lehiatsuak bultzatzen ditu, bai hiriguneetan zein landa-guneetan ere. Bere ekintzaileen profila besteren kontura lanean hasteko trabak edota zailtasunak izan ditzaketen pertsonak dira. Ekintzaileak trebatzen eta langileen enplegarritasuna eta gaitasun profesionala hobetzen dituzten prestakuntza-ikastaroak bultzatzen ditu.

Zer da Bultz-lan Consulting? Zein da bere zeregin nagusia?

Bultz-Lan Consulting aholkularitza eremuko enpresa da, Caritasen menpe dagoena. 1989. urtean jaio zen, besteren kontura lanean berriro hasteko zailtasunak zituzten taldeen artean autoenplegurako eta enplegua sortzeko ekimenak bultzatzeko asmoz.

Gaur egun gure jarduera nagusiak ekintzailetasuna izaten jarraitzen duen arren, mikrokroenpresei bideratutako he-

ziketa eta aholkularitza diragaratzen ditugun beste ildoak.

Bultz-lan Consultingek enpresen sorkuntza bultzatzea du helburu nagusia. Krisi ekonomikoaren ostean, ekintzailetasunari buruz euskal gizarteak duen jarreraren aldaketarik nabaritu duzue? Edo, aitzitik, besteren kontura lan egitea da gehien nahi dena?

Ekintzaileen profiletan, krisialdiak beti nabaritzen dira, eta eragin zuzena izaten dute.

Garai horietan ekintzailetasunari ekiten dioten lagun ugarik beharrak bultzatuta egiten dute, langabezia geratu baitira eta lan merkatura itzultzeko biderik errazena edo azkarrena ekintzaile bihurtzea izan daiteke. Badaude beste batzuk alde aurretik bere negozio propioa sortzeko ideia zutenak, eta, beren lan baldintzen ezegonkortasunagatik edota enplegua galtzeko beldurragatik, urratsa ematera ausartzen dira.

Krisia gainditu ostean, eta ekintzailetasuna ezagu-

tarazteko eta zabaltzeko egiten ari diren ahaleginei esker ere, batez ere gazteen artean aukera hau aintzat hartzen dutela nabaritzen dugu, baina pertsona askok uste dute oraindik besteren kontura lan egiteak lasaitasuna ematen duela. Are gehiago, lanpostu hori administrazio publikoen eremuko bada.

Ekintzailea jaio ala egin egiten da? Gaitasun bereziak eduki behar dira ekintzailea izatera heltzeko?

Ekintzaileak trebetasun batzuk behar ditu bere egitasmoa era egokian kudeatu ahal izateko, baina besteren kontura lan egiten duen edozein lagunentzara, abilezia batzuk alde aurretik hartuta zituena, eta beste batzuk, berriz, bere egitasmoa garatzen doan heinean ikasten eta hartzen ditu.

Badaude lagun batzuk arriskuarekiko higuina edukitzeko, erabakiak hartzeko, edota denboraren kudeaketa egokia egiteko teknikak, besteak beste, ezagutzen ez dituztenak, eta bizkor ikastera behartuta daude, denboran iraun nahi badute. Eta horretaz guztiaz, eremu honetan ezagupenik ez badute, kudeaketa kontuak ikasi behar

“Ekintzaileak trebetasun batzuk behar ditu bere egitasmoa era egokian kudeatu ahal izateko”

dituzte, eta oso adi egon behar dute bere negozioaren bilakaerari, egunean gertatzen denari jarraipena eginez.

Genero ikuspegiari dagokionez, zenbat dira ema-



Bultz-lanen eginkizunaz mintzatu da Javier Mata zuzendari orokorra.

kumezkoak eta zenbat gizonetzkoak? Negozioak sustatzerakoan, badago sexuen arteko alderik?

Azken urteotan gutxi gorabehera %50ean egongo ginateke; agian, gizonetzkoak apur bat gehiago izan daitezke. Sustatzen ditugun negozio gehienak saltokiak

“Gure ikastaroen xedea ekintzaile izan nahi duten pertsonak batez ere kudeaketan trebatzea da”

dira, batez ere ostalaritzarekin eta zerbitzuekin lotuta daudenak, eta, hortaz, ez dugu sexuen arteko alde berezirik nabaritzen. Egoera bestelakoa da eraikuntzaren ildotik garatzen ditugun enpresen kasuan; eremu honetan, gizonetzkoen proiektuak baino ez daude.

Bultz-lan Consultingek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen du. Diskriminaziorik ba al dago, zuen aburuz, euskal gizartean, ekintzailearen sexuaren arabera? Egungo mundu globalizatuan gizonetzkoek erraztasun handiagoak dituzte ekintzaileak izateko?

Nire ustez, ekintzailetasunari ekiterakoan ez dago genero diskriminaziorik, baina egia da, nahiz eta egungo gizartean ahalegin handiak egin diren eta egiten jarraitu, lan egitea eremu pertsonalarekin bateratzea zaila izan daitekeela, eta horrek batez ere emakumeengan izaten du eragina. Ez luke horrela izan behar, baina hori da sarritan gertatzen dena. Era berean, abian jartzen diren beste negozio batzuk aukera paregabea izan daitezke ordutegien eta lan jardunaldien aldetik malgutasun handiagoa edukitzeko. Honela, lan eremua eta eremu pertsonala hobeto bateratu daitezke.

Bultz-lan Consultingek, beste erakunde eta enpresa batzuekin batera, EAEko hiru lurraldeetan trebakuntza ikastaroak eskaintzen ditu, abileziak hobetzeko, lana aurkitzeko eta ekintzailetasuna sustatzeko asmoz. Zeintzuk dira gehien eskatzen diren ikastaroak?

Gure ikastaroen xedea ekintzaile izan nahi duten pertsonak batez ere kudeaketan trebatzea da, eta gehien eskatzen den gure ikastaroa Enpresa Kudeaketarena da oraindik ere. Enpresa edota negozio bat sortu aurretik,

kudeaketaren arloan eskarmentu gutxi eta ezagupen askorik ez duten lagunei bideratuta dago batez ere, baina bere negozioa sortu eta abian dutenentzat ere beste ikastaro batzuk eskaintzen ditugu. Esaterako, kudeaketa estrategikoa, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa...

Bultz-lan Consultingen ibilbidean ia 8.000 enpresa sortu dira. Sortzen laguntzen dituzuen enpresen ibilbideari jarraipenik egiten diozue? Noraino iristen zarete enpresa bat sortu ondorengo laguntza eta jarraipenarekin?

Hasierako prozesua pertsona bat negozio-idea batekin guregana heltzen denetik, negozioa bideragarria bada, ezinbestekoa zaion finantzaketa, dirulaguntzak eta jardueraren alta lortzen duen unera arte iristen da. Enpresaren lehenengo urtean tutoretza egin duen aholkulariak negozioaren jarraipena egiten du, eta, hortik aurrera, ekintzailearen eskuetan dago gurekin harremanetan jarraitzeko aukera, egin diezagukeen eskarien bidez, edota harremanetan jarraitzeko bultzatzen ditugun beste jarduera batzuetan parte hartuz. Dena dela, aldizka, hiru urtean behin, sortutako enpre-



Bultz-lanek mikroenpresak sortzen ditu.

sen biziraupenari buruzko ikerketa egiten dugu.

Enpresariak batez ere presio fiskalez eta lan harremanez kezaketen dira. Bi eremu horiek ekintzaileentzat ere kaltegarriak dira?

Guk mikroenpresak sortzen ditugunez, beste eremu enpresarialetan ez bezala, fiskalitateak edota lan harremanek ez dute horrenbesteko eraginik, salbuespen batzuetan izan ezik. Egia da fiskalitatea gogorra izan daitekeela lehenengo urteetan, baina, agian, ekintzaile moduan mikroenpresen bidez aritzen diren lagunentzako arazorik larriena lehenengo kontratazioak egiterakoan egon daiteke.

Nola ikusten duzu gure etorkizun laborala epe ertain-luzera? Zeintzuk dira, teknologiaren eskutik, ikusiko ditugun aldaketarik nabarienenak?

Teknologiaren eraginez aldatzen doan lan merkatuan gaude, eta nekez egingo du atzera. Horrenbestez, egoera berrira egokitu behar gara, eta kontuan izan behar dugu lan aukera batzuk desagertu egingo direla, eta beste ba-

“Gakoa merkatu bakoitzeko bezeroak asetzeko teknologiak eta pertsonak uztartzea izango da”

tzuk, berriz, zeharo aldatuko direla eta ez direla izango egun ezagutzen ditugun bezalakoak. Aukera berriak ere agertuko dira, eta agertzen eta eraldatzen jarraituko dute.

Teknologiak aldaketak ekarriko dizkigu, egia da, baina ez dugu ahaztu behar bezeroek zerbitzua eta arreta eskatzen dituztela, eta, horrela, gakoa merkatu bakoitzeko bezeroak asetzeko teknologiak eta pertsonak uztartzea izango da.



Ekintzaileen trebetasunaz hitz egin du Matak.